



**USANDIZAGA PEÑAFLOREDA AMARA BHIko ZUZENDARITZA
PROIEKTUA 2025-2029**

AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA	<u>2</u>
1.1 Proiektuaren justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza taldearen identifikazioa	<u>2</u>
1.2 Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak	<u>2</u>
1.3 Prozesuaren deskribapena	<u>4</u>
2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA: HAUSNARKETA PARTEKATUA	<u>4</u>
2.1. Datuen bilketa	<u>4</u>
2.2. Informazioaren azterketa	<u>5</u>
2.2.1 Ikastetxearen barne analisia	<u>5</u>
2.2.2 Ikastetxearen kanpo analisia	<u>13</u>
2.3 Erronkak identifikatu	<u>15</u>
3. HELBURUEN DEFINIZIOA. ERRONKAK HELBURU BIHURTZEN	<u>16</u>
4. JARDUERA-ILDOEN ZEHAZTAPENA. HELBURUETATIK EKINTZETARA	<u>16</u>
5. ZUZENDARITZA PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA	<u>19</u>
6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA	<u>20</u>
7. BIBLIOGRAFIA	<u>23</u>

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1 Proiektuaren justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza taldearen identifikazioa

Aspaldi ez da aurkeztu Usandizaga Peñaflorida Amaran (UPAn) Zuzendaritza-proiekturik eta kontuan izanda klaustroan ZP aurkezteko baldintzak betetzen dituztenen artean beste inor gehiago ez zegoela prest, pausu hau ematera ausartu gara María González (Ikasketa Burua izango dena), Uxune Aizpurua (Idazkaria izango dena) eta hirurok (Aida Castrillero, Zuzendaria), argi dugulako egungo erronka berriei aurre egiteko, edo aurretik ezarritako horietan aurrera egiteko, ikastetxean talde egonkor bat egotea garrantzitsua dela eta horrek ere ikastetxeari onurak dakarzkiola (proiektuak eskatu eta mantentzeko, gestiorako ordu gehiago lortzeko...).

Gure ZPa proiektu kolektibotzat jotzen dugu eta hezkuntza komunitate osoaren iritzia kontuan hartzen saiatu gara, lidergo demokratikoan eta partekatuan sinisten dugulako. Komunitatearen beharrak eta iritzia entzungo duen talde kohesionatu gisa jokatu dugu, behar diren erabakiak adosteko eta denon inklusioa (familien, ikasleen, klaustrokideen, gainontzeko langileena...) bermatzeko. Gure ikasleei kalitatezko heziketa integrala eskaintzearen aldeko apustua egin nahi dugu, UPA intitutua guztiona (irakasle, ikasle, guraso eta beste langileena) dela pentsatzen dugulako. Beraz, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eraginkorra ahalbidetzeko, guztiekin lan egiteko prest egongo gara.

Testuinguru honetan, eta kurtso hasierako ebazpenean ezartzen den moduan, Hezkuntza Sailak proposatzen dituen ildo estrategikoekin bat doazen honako hauek izango dira gure iparorratzak edo metak: goian aipatu dugun bezala inklusioa, komunitate osoaren ongizate eta zaintza emozionala, curriculum berria implementazioa burutzea, eleaniztasuna bultzatzea (euskara ardatz) eta digitalizazio orekatua garatzea.

Atal hau bukatu baino lehen eskerrak eman behar dizkiogu gidaritzan aritu den aurtengo Zuzendaritza taldeari, aurretik jakinda ekingo diogun ibilbidean bere laguntza eta babesa eskainiko digula.

1.2 Zuzendaritza proiektuaren lehentasunak

Zuzendaritza-funtzioaren marko konpetentziala oinarri hartuta eta [gogoeta](#) egin ondoren, Zuzendaritza-proiektuan ikastetxeko lehentasunak hauek dira:

KONPETENTZIA GILTZARRIAK

K3 (Lidergo pedagogikoa). Gure ikasgelen errealitatea kontuan izanda, ikas-irakaskuntza prozesuen kalitatea bilatuko dugu. Curriculum eta irteera profila aintzat hartuz, ikas-prozesuaren planifikazioa, ezarpena eta konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa lideratuko dugu, eta genero

ikuspegia, berditasuna, komunikazioa, ongizate emozionala, herritartasun demokratikoa eta gizarte koherentzia, digitalizazioa, jasangarritasuna, hizkuntza normalizazioa... ikas-prozesuetan txertatuko dira.

K4 (Lidergo partekatua). Nahiz eta hain handia izan gure zentrua, zuzendaritza talde honek hurbila izan nahi du guztientzat, eta kide eta inplikazio sentimendua komunitateko kideen artean garatu nahi dugu konfiantzazko harremanak ahalbidetuz.

K5 (Ikasle guztien arrakasta). Ikasle guztientzako eskola seguru eta atsegina lortu nahi dugu, inklusioan eta ekitatean oinarrituta. Jazarpena, absentismoa, bereizketa... saihestea eta pro/prebenitzea izango dugu helburu. Akademikoki, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun egokiena emango zaiola bermatzeko neurriak sustatzen jarraituko dugu.

K7 (Elkarbizitza positiboa). Ikasle eta irakasle elkarbizitza positiboaren kultura zabaldu nahi dugu giro atsegina sortuz. Harreman positiboak eraiki, pertenezia sentimendua bultzatu, errespetua eta lankidetzaren sustatu eta ongizate emozionala bermatu nahi dugu. Orain arte Batxillergoko eta DBHko irakasleek bi klaustro desberdinak direla sentitu dute (bi eraikin desberdinetan egiten dugu lan), beraz, gure helburutako bat izango da klaustro bakarreko kideak garelako sentiaraztea.

GAINERAKO KONPETENTZIAK

K1 (Plangintza estrategikoa). Hobekuntzarako esparruak identifikatu, gure lau urtetarako helburu estrategikoak zehazteko eta garatzeko. Horretarako eskola komunitatearen iritzia eta beharrak jasoko dira hobekuntza plana egiteko eta proiektu honen parte sentitzeko.

K2 (Eraldaketa antolatzea). Inklusioa eta malgutasuna izan behar dira gure ardatzak, egoera guztiei erantzun aproposa emateko eta erabaki eraginkorrenak hartzeko.

K6 (Printzipio etikoak). Eredugarritasunez eta gardetasunez jokatzeko ezinbestekoa da konfiantzazko giroa sortzeko eta hezkuntza-komunitatearen ongizatea bermatzeko.

K8 (Elkarrekin ikasten duen komunitatea). Konpetentzia honen helburua da, berrikuntzak bultzatuz, komunitate kide guztien garapen pertsonala, soziala eta profesionalaren kultura sustatzea. Horretarako ikaskuntza helburuekin prestakuntza planak burutzea eta irakasleen praktiken partekatzea garrantzitsua da.

K9 (Parte-hartze demokratikoa). Kide eta sentimendua bultzatzeko eta gure komunitateko kide guztiak (ikasleak, irakasleak, UPako gainontzeko langileak, ikasleekin esku hartzen edota eragiten duten erakunde eta entitateak...) ikastetxeko hezkuntza proiektuaren partaide sentitzeko eta honetan inplikatzeko parte hartzea bultzatu nahi dugu.

K10 (Kanpo harremanak). Guretzat oso garrantzitsua da beste ikastetxeekin, gizarte ingurunearekin eta administrazioarekin lan egitea. Gure ikasleen arrakasta lortzeko ezinbestekoa da ikasleen ibilbideko (jatorrizko LH) ikastetxeekin koordinazioa, adibidez.

1.3 Prozesuaren deskribapena

Lehenik eta behin, gure hezkuntza ikastetxeko komunitateko-kideen beharrak, espektatibak, iritziak... jasotzeko galdetegiak pasa dizkiogu komunitateari, hauek aztertzeko eta horren inguruan hausnartzeko. Horrez gain, autoebaluazio konpetentziala egin da, ikastetxeko informazioa aztertu da (gure barne dokumentuak, hala nola Urteko plana, memoriak, proiektuak, emaitzak...) eta gure ikastetxean eragina duten kanpo-faktoreen analisia ere egin da.

Barne analisia egin ondoren, identifikatu ditugu gure **indarguneak**, **ahuleziak** eta hobetu beharreko alderdiak (2.2.1 taula). Kanpo analisia egin ondoren identifikatu ditugu zeintzuk diren gure **mehatxuak** (ikastetxeak dituen helburuak eta erronkak lortzeko zailtasunak sortzen dituzten kanpo faktoreak) eta **aukerak** (hau da, ikastetxeak dituen helburuak eta erronkak lortu ahal izateko abaguneak), 2.2.2 taulan isladatu ditugunak. Aldagai guztiak kontuan hartuta, hobetzeko eremuak eta gure erronkak identifikatu dira (2.3 taulan).

3. puntuan gure helburuak formulatu eta horien lehentasuna ezarri dugu gure ikastetxearen beharren eta egingarritasunaren arabera. Helburuak zehazteko oinarria aurretik jasotako informazioaren inguruko hausnarketa sakona izan da eta baita Hezkuntza Sailetik datozkigun ildo estrategikoak ere.

Ondoren, helburu horiek lortzeko ekintzak zehaztu ditugu (4. puntua) eta, gero, Zuzendaritza-proiektua hedatzeko komunikazio prozesua (5. puntua).

Amaitzeko, ZPan finkatutako helburuen lorpen maila neurtzeko adierazleak, baita Zuzendaritza-proiektuaren agintaldirako denboralizarioa ere, zehaztu dira (6. puntua).

2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA: HAUSNARKETA PARTEKATUA.

2.1. Datuen bilketa

Zuzendaritza Proiektu hau garatzeko, eta gure zentruaren egoera diagnostikatzeko (zentroaren errendimendua, giroa eta ikasleen arrakasta) hurrengo alderdiak aztertu ditugu: **Ikasle guztien arrakasta, Bizikidetzaren positiboa eta ongizatea, Hezkuntza berrikuntza eta garapen profesionala, eta Ikastetxearen estrategia eta antolaketa eraginkorra.**

2.2. Informazioaren azterketa

2.2.1. Ikastetxearen barne-analisia

Usandizaga Peñaflorida Amara BHI, Donostiako Amara Berri auzoan dago. Gure ikastetxearen historia oso luzea da, beraz bakarrik aipatuko dugu nola sortu zen gaur egungo zentroa: diktadura garaian “Usandizaga” eraikina neskeentzako institutua zen, eta “Peñaflorida”koa mutilentzako, eta bi zentro desberdinak ziren. Diktadura bukatuta, bi institutuak mistoak izatera pasa ziren. 1998an, bi institutuak elkartu eta, bi urte lehenago sortutako Amara BHIarekin batera, ezarritako eskola-mapa berrira egokitutako Usandizaga-Peñaflorida-Amara Institutua eratu zen. Zeregin-banaketa bat diseinatu zen. Horren arabera, “Usandizaga” Institutuan batxilergoak eta Zuzendaritza kokatu ziren, eta “Peñaflorida” Institutua, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako geratu zen.

Orokorrean lau ikastetxetatik etortzen dira ikasleak gurera: Amara-Berri HLHI, Katalin Erauso HLHI, Ikasbide HLHI eta Aiete Ikastetxetik.

Gure ikastetxean DBH, Batxilergo, Gaueko batxilergo, ZIG, eta Publizitate grafikoaren goi zikloko ikasketak eskaintzen dira; honez gain, Curriculum Anitzeko (CA) bi talde (3. eta 4. mailan).

2024-2025	TALDEAK	IKASLEAK	IRAKASLEAK
DBH- 1.maila	8	192	206
DBH- 2.maila	8	187	
DBH- 3.maila	8	164	
Curriculum Aniztasun Taldea – 3. maila	1	15	
DBH- 4.maila	8	173	
Curriculum Aniztasun Taldea – 4. maila	1	14	
ZIG gela	2	11	
Batxilergoa 1. maila	18	377	
Batxilergoa 2. maila	15	345	
Gaueko batxilergoa	1	51	

Publizitate grafikoaren goi zikloa 1. maila	1	15
Publizitate grafikoaren goi zikloa 2. maila	1	14
GUZTIRA	72	1558

A, B eta D eredu ikastetxea dela kontuan hartuta, aipatzekoa da ikasle goaren gehiengoarentzat euskara ama hizkuntza ez dela, eta gure ikasle artako harremanetan gaztelania hizkuntza dela nagusi. Gainera, kontuan hartu beharreko beste datu bat da atzeritik etorritako ikasle kopurua oso altua dela. 2010etik 2023ra erkidegoan **etorkinen tasa** bikoiztu da (7,5>13,4), eta gure ikastetxean hirukoiztu da **(8,2>23,2)**, EBALUAZIO DIAGNOSTIKOTik ateratako grafikoan ikusten den bezala:

ETORKINAK										
Ikasle etorkin eta bertakoen ehunekoa ikastetxean eta batez bestekoa Euskadin.										
	Jatorria	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021	2023
Ikastetxea	Bertakoa (%)	100,0	91,8	90,8	86,8	91,5	86,5	77,7		76,8
	Etorkina (%)		8,2	9,2	13,2	8,5	13,5	22,3		23,2
Euskadi	Bertakoa (%)	92,3	92,5	92,1	91,9	92,0	91,9	90,5	88,1	86,6
	Etorkina (%)	7,7	7,5	7,9	8,1	8,0	8,1	9,5	11,9	13,4

Horrek guztiak eragina zuzena du gure egunerakotasunean.

Irakasle goari dagokionez, aipatzekoa da ere gure klaustrakide erdia ez dela finkoa.

Gure ikastetxeko egoera, dokumentazioa... aztertuta, eta hezkuntza komunitateto kideen beharrak, iritziak eta espektatibak jasota, gure indarguneak eta ahuleziak identifikatu ditugu.

BARNE-ANALISIRAKO TAULA			
EREMUA	BARNE EGOERAREN ANALISIA ALDAGAIK	DATUAK ETA INFORMAZIO ESANGURATSUA	BARNE-ANALISITIK ERATORRITAKO INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK
1 IKASLEEN ARRAKASTA	Curriculum garapena	Ikastetxearen berezko programak eta proiektuak: -Hizkuntza-normalizazioa -eTwining -Erasmus+	INDARGUNEAK: Proiektuen arduradunen inplikazioa eta lana. Proiektuen aniztasuna bera eta horiekin erlazionatutako ekintzak edo tailerrak, Euskararen eguna, adibidez. AHULEZIAK: Klaustro osoak proiektuen ardura denona dela bereganatu behar du. Hainbat ekintza antolatzeke zailtasunak gure ikasle kopurua eta espazio faltagatik.
	Ikasleen emaitzak	a)Euskara (erabilera eta ezagutza): Familia eta ikasleen galdetegiak. Ikasleen %90ak gaztelaniara jotzen du.	a) INDARGUNEAK: Normalkuntza proiektua garatzen da ikastetxean. Ikasleek euskara ikasleko HIPI eta EUSLE daukate. Horrez gain, irakasleen sensibilizazioa euskararen erabilerarekiko oso altua da. AHULEZIAK: ikasleen arteko komunikazioa gaztelaniaz gauzatzen da eta euskaraz ez dakiten etorkinen kopurua altua da. Gainera, gure matrikula bizia denez, ikasle etorkinak ikasturtean zehar iristen dira, eta horrek bai erabileran bai ezagutzan eragin haundia dauka.

		b) Ikasleen ikas-irakas prozesua: -Bidalitako galdetegietan jasotako informazioa. -Jarraipen orriak, buletinak. -GITak eta ebaluazio aktak.	b) INDARGUNEAK: Irakaslegoaren eta Orientatzailearen inplikazioa (ikas-irakas prozesuan ikasle bakoitzaren beharrei erreparatuz eta ikasle bakoitzari eskakizunak egokituz). PT-k: Hezkuntza Premia Berezien zerrendako ikasleekin gela barruan egiten dute lan, ikaslearen baldintzak eta antolamenduak uzten duen heinean. Aurten 3 PT ditugu 1. eta 2. mailetan HPBko ikasleei arreta ematen diete. HPBS proiektuko 17 ordu esleitzen zaizkio ikastetxeari ikasleen aniztasunari erantzuteko. BIDELAGUNA programak ikasleei denbora tarte osagarri bat eskaintzen die eskolan izan ditzaketen zailtasunei aurre egiteko eta eskolako arrakasta indizeak hobetzeko. AHULEZIAK: Ikaslegoaren motibazio eskasa. Errepikatzaile kopurua. Curriculum berria ezagutza oraindik ez da behar bestekoa. Gero eta ikasle gehiago promozionatzen dute LHtik ikasgai instrumentalak gainditu gabe, eta horrek DBHko 1.mailako emaitzetan islatzen da. Behar berezi horiek atenditzeko
--	--	---	--

			baliabide personal gehiago beharko genituzke.
	Aniztasunari erantzuna	<u>Datu administratiboak:</u> - HBSP:12 ikasle - JPP: 255 ikasle (DBHko %34) - Curruculum Anitzako (CA) bi talde: 3. eta 4. Mailan - 29 HIPI ikasle - 17 EUSLE ikasle <u>W67 aplikaziotik ateratako informazioa:</u> - Berritzeguneko zerrendan 83 ikasle; horietatik 2 CNE globalak eta 2 arloko (ikasle gorra) CNE. - Ikasle entzumen urrutasunen DBHko erreferentziazko zentroa gara eta ARANSIGIKO lankidetzan dihardugu. Entzumen urritasuna: 7 ikasle. - Ikastetxeko zerrendan 61 ikasle - Osagarri programan: 3 ikasle	INDARGUNEAK: Aniztasuna zabala denez horrek gure hezkuntza komunitatea aberastendu. Aniztasun horri erantzuteko baliabideak ditugu (Bidelagun, HIPI, EUSLE, CA, PREE orduak...) eta klaustroa inplikatzeko da ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteko. Horretaz gain, ikastexeak ikasgai instrumentaletan kodozetziak eta bikoizketak antolatzen ditu; eta hautazkoaren orde, indartze tailerrak eskaintzen ditu. AHULEZIAK: Berez UPAn arreta bereziabehar duen ikasle kopuru altua da. Aniztasun horri erantzuna emateko baliabide gehiago ez izatea: aurten 8 talde ditugu bai 3. bai 4. mailan, baina kurtso bakoitzean CA talde bakarra 2 beharrean. HLBP ikasle kopurua kontuan izanda, 2024an maiatzaren 3an argitaratutako "Ikasleen aniztasunari erantzuteko ebazpenak" dionaren arabera, 4 PT dagozkigu eta guk 3 besterik ez ditugu. Horretaz gain, ikastetxeak bikoizketetan inbertitzen dituen 100 ordu ez dira nahikoak.
	Ongizate maila	a)Familien eta ikasleen beharrak eta espektatibak:	a)INDARGUNEAK: 1.mailako ikasleek eta beraien familiek institutuan ikasketak hasi baino

2 BIZIKIDETZA + ONGIZATEA		Bidalitako galdetegietan jasotako informazioa. b)Inplikazioa eta pertenenzia sentimendua: Bidalitako galdetegietan jasotako informazioa.	lehenago daukaten beldur sentimendua, berehala desagertzen da, eta pozik eta lasai etortzen dira orokorrean. AHULEZIAK: jangela zerbitzua, irakasle guztiekin harrema estuagoa izatea eta ez bakarrik tutoreekin. b) INDARGUNEAK: Orokorrean eskola komunitatea zentroko kide sentitzen da, eta babestua sentitzen da, irakasleen aldetik (ikasleak) edo/eta zuzendaritzaren aldetik (Ikasleak eta irakasleak). AHULEZIAK: Familien %85ak gutxitan edo inoiz ez du parte hartzen ikastetxeak proposatzen dituen jardueretan. Bi etapak (DBH eta Batxilergoa) bi eraikin desberdinetan kokatuta egonik, klaustro bakarraren sentimendua ez dago, orokorrean.
	Prebentzio neurriak	Urteko Planean agertzen diren programak eta proiektuak: -Elkarbizitza eta Bizikasi -Hezkidetza	INDARGUNEAK: Proiektu eta planen arduradunen inplikazioa eta lana. Hauen aniztasuna bera eta horiekin erlazionatutako ekintzak edo tailerrak (Prebentzio-tailerrak DBH osoan, Ongizate emozionala eta Sexu hezkuntza formazioak jaso dituzte...). AHULEZIAK: Klaustro osoak proiektuen ardura denona dela bereganatu behar du.

	Gatazken kudeaketa	BAT taldekoekin bilerak: -Ikasturte honetan, orain arte 7 jokabide suizidak prebenitzeko protokolo ireki ditugu kurtso hasieratik honera. -Eskola jazarpen protokolo 1 ireki dugu. - Orain arte 107 parte jarri zaizkie ikasleei: Desegokiak: 70 Kontrako: 13 Kalte larriak: 24	INDARGUNEAK: Arintasuna: berehala aktibatzen dira protokoloak. AHULEZIAK: Zaila egiten da jarraipen sakona egitea kaso guztietan.
3 BERRIKUNTZA ETA GARAPEN PROFESIONALA	Formazioa eta trebakuntza	IUPen jasotako informazioa.	INDARGUNEAK: Klaustroak proposaturiko formakuntzan parte hartu du. AHULEZIAK: Formakuntzan jasotzen dena askotan ez da klaseetara iristen.
4 ESTRATEGIA ETA ANTOLAKETA ERAGINKORRA	Testuinguru orokorra	a) Testuinguru sozioekonomikoa: zentroko dokumentazioa eta ISEK datuak: 2023an ikastetxean zeuden 1503 ikasleen %35,79 bekaduna izan zen. 2023an ikastetxeko ISEK batasbestekoa -0,06 izan zen.	a) INDARGUNEAK: Bidelaguna eta dauzkagun indartze tailerrak (euskara, ingelesa, matematika...) AHULEZIAK: Ikasleen egoera ekonomikoa ikas prozesuan oztopo izatea (laguntza akademikoa, materiala ezin erosi...). Baliabide gehiago ez izatea.

		b)Testuinguru sociolinguistikoa: Familia eta ikasleen galdetegiak; eta ISEK datuak. Ikasle asko familia erdaldunetan bizi dira. Zentruan ikasleen artean (%90) gaztelania erabiltzen dute: ikasle gehienek eguneroko bizitza egiteko ez dute euskararen beharrik ikusten, eta hori institutuan isladatzen da. c)Komunikazioa: Bidalitako galdetegietan jasotako informazioa. d)Ikastetxeko dokumentuen egoera: 2.eranskinean jasotako informazioa	b) INDARGUNEAK: EUSLE, Normalkuntza taldea, Hizkuntza indartze tailerrak. AHULEZIAK: Euskara klaseetan irakasleekin erabiltzen den hizkuntza baino ez da ikasle askorentzat, eta kostata. c)INDARGUNEAK: institutuko kide gehienek ikastetxetik jasotzen den informazioa nahikoa eta argia dela uste dute, eta komunikaziorako kanalak errazak eta eraginkorrak. AHULEZIAK: familia batzuekin oso zaila egiten zaigu harremanetan jartzea. d)INDARGUNEAK: orokorrean dokumentak badaude eta eguneratuta daude. AHULEZIAK: Plan batzuek egin gabe edo eguneratu gabe daude: Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Plana, Irakurketa Plana... besteak beste.
--	--	--	--

	Azpiegitura eta baliabideak	Bidalitako galdetegietan jasotako informazioa	INDARGUNEAK: duela 10 urte berritutako erainkuntza da. AHULEZIAK: txikia geratu da ikastetxea kontuan hartuta gure ikasle kopurua.
--	-----------------------------	---	--

2.2.2. Ikastetxearen kanpo-analisia:

Ikastetxea Amara auzoan kokatzen da, eta errealitate baten parte da; eta errealitate horrek eragin zuzena du gure ikastetxean.

ISEK mailari dagokionez, hurrengo taulan argi geratzen da nola joan da Amara auzoa aldatzen:

	ISEK	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021	2023
Ikastetxea	ISEK batzbestekoa	0,59	0,4	0,42	0,28	0,14	-0,01	-0,08		-0,06
	ISEK maila	4	4	0	4	3	3	3		2

Azken hamar urtetan gure ISEK maila pasa da ALTUtik ERTAIN-BAXUetara, bekadun ikasleen ehunekoa (%35,79) adierazten digun bezala: 285 ikasle DBHn, 242 Batxilleraton eta 11 Goi zikloan

Aurrekoa kontuan hartuta, somatu daiteke zein den gure ikasle askoren errealitatea auzoan eta etxean: euskara ikastetxean bakarrik lantzen den zerbait da. Izan ere, gure ikastetxea kokatuta dagoen auzoko biztanle euskadunen ehunekoa %50 baino askoz baxuagoa da. Datuak ateratzeko erabiltako Ebaluazio txostenak esaten duen moduan “orain arte burutu diren ikerketek erakusten dute argi errendimendu-proba erantzuteko ikasleek erabiltako hizkuntzak emaitzetan eragiten duela”, eta “eragin hori are handiagoa da” “ikaslearen familia-hizkuntza ez datorrenean bat probaren aplikazio-hizkuntzarekin”. Guzti hau ikasketetara estrapolagarria da, eta hona hemen gure ikastetxeko egoera:

	Familia hizkuntza	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2021	2023
Ikastetxea	Euskara (%)	14,0	27,3	25,6	21,3	16,2	16,5	9,9		13,7
	Ez euskara (%)	86,0	72,7	74,4	78,7	83,8	83,5	90,1		86,3
Euskadi	Euskara (%)	15,0	20,1	18,5	19,1	20,7	18,7	17,8	13,0	18,3
	Ez euskara (%)	85,0	79,9	81,5	80,9	79,3	81,3	82,2	87,0	81,7

Hona hemen ikastetxean eragina duten ondoko kanpo faktoreen inguruko informazioaren azterketa:

KANPO-ANALISIRAKO TAULA			
EREMUA	KANPO EGOERAREN ANALISIA ALDAGAIK	AZTERTUTAKO INFORMAZIOA	KANPO-ANALISITIK ERATORRITAKO AUKERAK ETA MEHATXUAK
IKASLEEN ARRAKASTA	Ikasleen emaitzak	- PISA - EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA	MEHATXUAK: emaitzak aztertuta argi geratu da B ereduko ikasleek emaitzak baxuagoak direla D eredukoekin alderatuz. AUKERAK: hurrengo bi urtetan DBHn D eredu besterik ez da eskainiko; oraingo B ereduko ikasleak D ereduko taldeetan integratuko dira.
ESTRATEGIA ETA ANTOLAKETA ERAGINKORRA	Testuinguru orokorra	Biztanleriaren bilakaera: Amara auzoan inmigrazio tasa joan da areagotzen, eta 2023an ikasleen %23,2 etorkina zen.	MEHATXUAK: harrera plan eza. Euskararen erabilera; euskara ez dakien ikasle batek erabat baldintzatzen du gela, euskal hiztunak erdal komunikazio-eremura eramanez. AUKERAK: Ikastetxeko kulturartekotasuna.

	Kanpo-eragileekin harremanak	a) Gizarte-zerbitzuekin harremana: Gizarte-zerbitzuekin bilerak egiten dira, berariak ezarritako denboralizazioarekin. b) Hiriko beste ikastetxeekin harremanak: ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin bilerak egiten dira.	a) MEHATXUAK: behar den laguntza berehalakoa ez izatea, administrazioak bere <i>tempo</i> propioa duelako. AUKERAK: ikasleen beharrei erantzuna ematea. b) MEHATXUAK: ikastetxeen artean harremanak sendotzeko gune eta memento falta. AUKERAK: Trantsizio Plana sortzea.
--	------------------------------	---	---

2.3. Erronkak identifikatu

IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK	
EREMUA	ERRONKAK
Ikasleen arrakasta	•Euskararen erabilera zabaltzea. •B ereduko ikasleen emaitzak hobetzea.
Bizikidetza + ongizatea	•Parteen kopurua murriztea. • Ikas komunitatearen ongizate emozionala zaintzea • Klaustro bakarraren sentimendua sustatzea.
Berrikuntza eta garapen profesionala	•Irakasleek jasotako formakuntzak geletan praktikan jartzea.
Estrategia eta antolaketa eraginkorra	•Ikastetxeko dokumentu eta Planak eguneratzea. •Ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin Trantsizio Plan bat sortzea. •DBH-ko eta Batxilergoko egunerokotasunaren antolakuntzarako baliabide digitalak bateratzea.

3. HELBURUEN DEFINIZIOA. ERRONKAK HELBURU BIHURTZEN.

Aurreko informazio guztia kontuan hartuta, hauek dira gure erronkak, helburu bihurtuta, gure ikastetxearen beharren eta egingarritasunaren arabera:

ANALISIAREN ONDORIOAK	HELBURUA ZEHATZTU
Hobetzeko eremua 1: Ikas komunitatearen ongizate emozionala	Hezkuntza komunitatearen ongizatea zaintzea, ezberdinak errespetatuz, hezkidetzat eta berdintasuna sustatuz, sexuaren, jatorriaren eta abarren araberrako bazterketa-jokabideak ekiditeko eta eskolan giro positiboa lortzeko.
Hobetzeko eremua 2: Euskararen erabilera	Euskararekiko motibazioa sustatzea, euskararen erabilera bultzatuz, hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izateko, eta ondorioz, ikasleen euskara maila hobetzeko.
Hobetzeko eremua 3: Irakurketa plana	Irakurketa Plana berritzea, irakurtzeko leku atseginak sortuz, eta ikasgai guztietan testu mota desberdinak landuz, ikasleen irakurketa konpetentzia indartzeko.
Hobetzeko eremua 4: Trantsizio plana	Trantsizio Plan bat sortzea, ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin batera landuz, ikasle berriak lasai eta gogotsu etor daitezzen, eta ondorioz haien emaitza akademikoak hobetzeko.
Hobetzeko eremua 5: Ikastetxeko barne kudeaketa	DBH-ko eta Batxilergoko egunerokotasunaren antolakuntzarako baliabide digitalak bateratzea, DBH-n erabiltzen diren baliabide digitalak implementatuz Batxilergoan, bi etapan arteko informazioa bateratzeko.

4. JARDUERA-ILDOEN ZEHATZAPENA. HELBURUETATIK EKINTZETARA

2025/2029 ikasturteetarako gure ardatz edo helburuak finkatzeko, kontuan hartu ditugu gure Ikastetxeko Urteko Planean (IUP) agertzen direnak, eta kanpo eta barne-analisietatik ateratako ondorioak. Atal honetan, helburu horiek lortzera zuzendutako ekintza zehatzak ere planifikatu dira.

HELBURUETATIK EKINTZETARA

LEHENETSITAKO HELBURUAK	EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
			25-26	26-27	27-28	28-29
1.helburua: Hezkuntza komunitatearen ongizatea zaintzea, ezberdinak errespetatuz, hezkidetzak eta berdintasuna sustatuz, sexuaren, jatorriaren eta abarren arabera bazterketa-jokabideak ekiditeko eta eskolan giro positiboa lortzeko.	1.1. Tutoretza planari arreta berezia eskaini.	1.1/1.2 Tutoretza planean osasun emozionalarekin erlazionatutako ekintzak aurrera eramanez dira.	X	X	X	X
	1.2. Eragileen arteko harreman positiboak sustatu eta sendotu.	1.3 Elkarbizitza-Hezkidetzak batzordeak ikastetxean antolatzen diren ekintzak sistematizatu dira (tailerrak, txarlarak...).	X	X	X	X
	1.3 BAT taldea ezagutarazi eta indartu	1.3 Ikasturte hasieran BAT taldearen aurkezpenak egin dira klaseetan eta klustroan.	X	X	X	X
	1.4 Jarrera sexistak identifikatu eta zuzendu.	1.4 Emakumea ardatz ekintzak burutu dira (A25, Emakume zientzialariak, M8...).	X	X	X	X
	1.5 Heziketa afektibo-sexuala eskaini.	1.5 Sexu-heziketan adituekin tailerrak burutu dira.	X	X	X	X
2.heburua: Euskararekiko motibazioa sustatzea, erabilera bultzatuz, hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izateko, eta ondorioz, ikasleen euskara maila hobetzeko.	2.1. Harreman guztiak euskaraz izatera bultzatu, bai ikasleen artekoak, zein irakasleen artekoak edota ikasle-irakasleen artekoak.	2.1 Egunerokotasunean euskararen presentzia da nagusi.	X	X	X	X
	2.2 Euskararekin erlazionatutako ekintzak egin.	2.2 Urteko memorian euskararen aldeko ekintzen zerrenda egin da.	X	X	X	X
	2.3 Taldekatze	2.2 Egindako ekintzen balorazioa positiboa izan da.	X	X	X	X

	irizpideak finkatu talde orekatuak izateko. 2.4 Normalkuntza Proiektua eta Batzordea berritu.	2.2 EGB (Euskal Girotze Barnetegia) antolatu da. 2.3 IHP planean adierazi dira irizpideak. 2.3 Finkatutako irizpideak berrikusi dira eta doiketak egin dira. 2.4 Normalkuntza Proiektua eta Batzordea berritu da.	x x x	x x x	x x x	x x x
3.helburua: Irakurketa Plana berritzea, irakurtzeko leku atseginak sortuz, eta ikasgai guztietan modu bateratuan testu mota desberdinak landuz, ikasleen irakurketa konpetentzia indartzeko.	3.1 Liburutegia berritu 3.2 Liburu mailegu sistema antolatu eta martxan jarri. 3.3 Ikasle eta irakasleen artean galdetegi bat pasa irakurzaletasuna indartzeko ideiak jasotzeko. 3.4 Ekintza motibagarri desberdinak martxan jarri irakurketa konpetentzia lantzeko. 3.5 Ekintza horien doiketak egin.	3.1 Liburutegia berritzeko lanak egin dira. 3.2 Mailegu sistema ezarri da. 3.3 Irakurzaletasuna indartzeko ideiak jasotzeko galdetegi bete da. 3.4 Irakurketa konpetentzia lantzeko ekintza motibagarri batzuk egin dira. 3.5 Kurtso bukaeran egindako ekintzen hausnarketa egin da.	x x x x x	x x x x x	x x x x x	x x x x x
4.helburua: Trantsizio Plan bat sortzea, ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin batera landuz, ikasle berriak lasai eta gogotsu etor daitezen, eta ondorioz	4.1 Ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin kontaktuan jarri eta talde lana sortu. 4.2 Bilerak egiteko egutegi bat sortu. 4.3 Ikasleentzako ekintzak antolatu.	4.1 Talde lana sortu da. 4.2 Bilerak egiteko egutegi bat adostu dugu. 4.3 Kurtsoan zehar ekintza desberdinak gauzatu dira bai LH-ko eskoletan bai gure zentroan. 4.3 Egindako ekintzak	x x x	x x x	x x x	x x x

haien emaitza akademikoak hobetzeko.		berrikusi dira eta doiketak egin dira.	x	x	x	x
5.helburua: DBH-ko eta Batxilergoko egunerokotasunaren antolakuntzarako baliabide digitalak bateratzea, DBH-n erabiltzen diren baliabide digitalak implementatuz Batxilergoan, bi etapen arteko informazioa bateratzeko.	5.1 Baliabide digitalak inplementatu Batxilergoan.	5.1 Baliabide digitalak inplementatu dira Batxilergoan.	x			
	5.2 Baliabide digitalak erabiltzen ikasteko formakuntza antolatu.	5.2 Baliabide digital horiek erabiltzen ikasteko formakuntza egin da.	x			

5. ZUZENDARITZA PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

Zuzendaritza-proiektua hedatzeko komunikazio prozesua hau izango da:

ZUZENDARITZA-PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIO PROZESUA			
NORK	Zuzendaritzarako hautagaiek		
NORI	Hezkuntza-komunitateari		
NOLA ETA NON	Klaustro bileran aurkeztuz	OOGan aurkeztuz	Institutuko web orrian publikatuz
NOIZ	2025eko otsailaren 24tik martxoaren 4era bitartean (biak barne)	2025eko otsailaren 24tik martxoaren 4era bitartean (biak barne)	Apirilean

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA

Hona hemen ZPan finkatutako helburuen lorpen maila neurtzeko adierazleak, baita Zuzendaritza-proiektuaren agintaldirako denboralizazioa ere, proiektuak aurrera egin ahala neurtuko direnak:

2025-2029 AGINTE KOADROA							
	Konpententziarekin lotura	Helburuak	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				25-26	26-27	27-28	28-29
1.H	K2: Eraldaketarako antolaketa K4: Lidergo partekatua K5: Ikasle guztien arrakasta K6: Printzipio etikoak K7: Elkarbizitza positiboa K9: Parte-hartze demokratikoa K10: Kanpo harremanak	Hezkuntza komunitatearen ongizatea zaintzea, ezberdinak errespetatuz, hezkidetzeta eta berdintasuna sustatuz sexuaren, jatorriaren eta abarren arabera bazterketa-jokabideak ekiditeko eskola-giro positiboa lortzeko.	Era desberdinetako protokoloen %100en jarraipena egiten da	X	X	X	X
			Komunitatearen ongizatea neurtzeko inkestetan batezbestekoa 7 baino altuagoa izan da.	X	X	X	X
			Urtero bizikidetzaren aurkako jokabide larrien kopuruak behera egin du.	X	X	X	X
2.H	K1: Plangintza estrategikoa K2: Eraldaketarako antolaketa K7: Elkarbizitza positiboa K10: Kanpo harremanak	Euskara motibazioa sustatzea, euskararen erabilera bultzatuz, hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazio-hizkuntza euskara izateko, eta ondorioz, ikasleen euskara maila hobetzeko.	Ikasleen euskararen erabilera neurtzeko inkestetan gorakada da.	X	X	X	X
			Ekintzetan ikasleen %70ek parte hartu dute.	X	X	X	X
			ISEI-IVEIren arabera gure ikastetxeko ikasleen euskara erabileraren indizea igo da.	X	X	X	X

3.H	K2: Eraldaketarako konpetentzia K3: Lidergo partekatua K5: Ikasle guztien arrakasta K8: Elkarrekin ikasten duen komunitatea	Irakurketa Plana berritzea, irakurtzeko leku atseginaz sortuz, eta ikasgai guztietan testu mota desberdinak landuz, ikasleen irakurketa konpetentzia indartzeko.	Astero saio bat izan dute ikasleek gustoko irakurketak egiteko.	x	x	x	x
			Mailegu sistema ikasleen %20ak erabili du	x	x	x	x
			PISAren arabera gure ikasleen Irakurtzeko konpetentzia 2025ekoarekin konparatuta hobetu da.			x	
			ISEI-IVEIren arabera gure ikasleen Hizkuntza-komunikazio konpetentzia (euskaraz eta gaztelaniaz) hobetu da.	x	x	x	x
4.H	K2: Eraldaketarako antolaketa K3: Lidergo partekatua K5: Ikasle guztien arrakasta K10: Kanpo harremanak	Trantsizio Plan bat sortzea, ibilbideko LHI-ko ikastetxeekin batera landuz, ikasle berriak lasai eta gogotsu etortzeko, eta ondorioz haien emaitza akademikoak hobetzeko.	Ekintzen asebetetze maila neurtzeko gurasoei bidalitako inkestetan batezbestekoa 7 baino gehiago izan da.		x	x	x
			1DBHko ikasleen ongizatea neurtzeko inkestetetan batezbestekoa 7 baino gehiago izan da.		x	x	x
			1DBHko ikasleen suspentso kopurua aurreko ikasturtekoarekin konparatuta jeitsi da.		x	x	x
5.H	K1: Plangintza estrategikoa	DBH-ko eta Batxilergoko egunerokotasunaren	Batxilergoko irakasleen %50ak baliabide digital berriak erabiltzen ditu.	x			

	K2: Eraldaketarako antolaketa K8: Elkarrekin ikasten duen komunitatea	antolakuntzarako baliabide digitalak bateratzea, DBH-n erabiltzen diren baliabide digitalak implementatuz Batxilergoan, bi etapen arteko informazioa bateratzeko.	Batxilergoko irakasleen %100ak baliabide digital berriak erabiltzen ditu.		X	X	X
--	---	--	--	--	---	---	---

7. BIBLIOGRAFIA

-**3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE)**, abenduaren 29koa, hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 (LOE) lege organikoa aldatzen duena.

- **17/2023 LEGEA**, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.

-**29/2023 DEKRETUA**, otsailaren 28koa, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta huraosatzen duten karguak uzteari buruzkoa.

- **AGINDUA, 2024ko abenduaren 2koa**, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez merezi-mendu-lehiaketa bat iragartzen baita Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko, 2025eko ekainaren 30ean kargua hutsik izango duten ikastetxeetan.

-Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena, 2024-2025 ikasturterako antolaketa Bigarren Hezkuntzako institutuetan.

-EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO. HEZKUNTZA SAILA: Zuzendaritza proiektua egiteko laguntza-gida. Vitoria-Gasteiz, 2024.

-Ebaluazio diagnostikoa 2023: Ikastetxeko txostena.

-IKASTETXEKO DOKUMENTUAK: Hezkuntza proiektua, Hezkuntza proiektua, Ikasturteko Urteko Plana, Urteko Memoria, Digitalizazio plana...